NESKATILLA ON BATEN ERIOTZAKO AGURRAK



Agur ¡o! zemendiko[1] aurrenengo eguna,
Eguzki motelagaz zareana gorde,
Agur, zuk egitean jaubetu jat illuna,
Geiago goiš gozoak poztuko enabe.
Agur ¡o! uda eder amaitu ziñeana,
Bear ziñean aña ezin neurtiztua,
Agur uda azkenetan zatozan urakana,
Egan eroateko orri igartua.
Agur, loracho polit usaiñ onak opaka
Bizi ziñeenak atzo kolkoak zabalik;
Agur, chori zoliak egunari dedarka
Zenbiltzenak goišetan ni esnatu nairik.
Agur, mundu zoroa, agur deutsut egiten,
Niretzako ez dozu gaur balio ezer;
Oraiñ niñoialako bizitera asiten,
Eta uste guztiak urten deustet oker.
Agur, ¡o! etorkizun eskintsariz betea,
Agur, edertasuna, agur ondasunak;
Agur ¡o! Mariaren alabazko taldea,
Agur, bertako nire dontzella lagunak.
Agur, familiako maitetasun gozoak,
Agur, amacho zure laztan atsegiñak,
Agur, aita maitea, aizpa ta nebachoak,
Agur, jolas pozgarri zuekaz eginak.
Agur, agur, banoa, banoa bai, betiko,

(1) Noviembre.

Banoa, baña noa beti iraunera,
Banoa, baña enaz atzera etorriko,
Ama biotzekoaz bizi izatera.
Arbolatik gaur jausten diran orri igarrak,
Legez ama zugandik noa jausitera;
Emon deust uste baga gazterik ill bearrak,
Orbel bat legez noa auts biurtutera.
Ez egizu amacho ainbeste negar egin,
Agertuten jat beste Ama bat obea;
Gorputza osatuten zuk deustazu alegiñ,
Ak zoriondu nai deust baña arimea.
Zu ichita agana noa ama samindua,
Ak gozatuko deutsu gaurko zure miña;
Gorputza largetan dot arime au banoa,
Gozetara Zeruan bai, Ama Birjiña.
. . . . . .
Loracho baten gisan sameak ukatzean,
Neskatilleak eban makurtu burua;
Zemendian orriak igarrik jausitean,
Agertu eben danak: Ill aren damua.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.